



**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS
DEL SEÑORIO DE BIZKAIA**
**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN
BAZKUN OHORETSUA**

Bilbao, 8 de junio de 2016

Estimado/a compañero/a:

En su apuesta por la formación continua y las relaciones internacionales, la Junta de Gobierno del Colegio, a iniciativa de la Comisión de Relaciones Internacionales y de la Escuela de Práctica Jurídica, ha aprobado la participación de un equipo formado por **dos compañeras/os menores de 30 años, con menos de 2 años de ejercicio profesional y dominio del inglés**, en el **Concurso Internacional sobre Derecho Contractual** que se celebrará en Varsovia los días 7 a 9 de Octubre de 2016, a iniciativa de la Comisión de Formación de la FBE (Federación de Colegios de Abogadas/os de Europa), de la que nuestro Colegio forma parte.

La finalidad del Concurso es la formación de jóvenes abogados/as para que cooperen con personas de otros países, realizando la simulación de un caso de derecho mercantil contractual. En el caso, cada una de las partes será de un país diferente y ambas estarán interesadas en negociar un contrato a fin de comerciar juntas, y cada equipo de Abogados/as habrá de negociar las cláusulas del contrato con la otra parte y redactarlo.

El único idioma del concurso será el inglés, por lo que quien quiera participar habrá de demostrar tener un nivel suficiente.

Los costes del viaje y estancia de las personas seleccionadas correrán a cargo del Colegio y de la FBE.

Toda la información sobre este Concurso Legal Internacional está en la página Web de la FBE y se puede acceder a través de este [enlace](#).

Por ello, todos los colegiados/as que cumplan

Bilbo, 2016ko ekainak 8

Lankide estimatua:

Gure Bazkunak prestakuntzaren eta nazioartekotzearen alde egiten du. Hori dela eta, Gobernu Batzak —Nazioarteko Harremani buruzko Batzordearen eta Praktika Juridikorako Eskolaren ekimenez—, **Kontratazio Zuzenbideari buruzko Nazioarteko Lehiaketarako talde** bat osatzea erabaki du; talde horretan **kide bi** egongo dira, eta bertan egoteko baldintza hauek dira: **30 urte baino gutxiago izatea, lanbidean 2 urtez baino gutxiago aritzea eta ingeles hizkuntza menperatzea**. Lehiaketa hori 2016ko urriaren 7tik 9ra izango da, Varsovian, Europako Abokatuen Elkargoen Federazioaren Prestakuntza Batzordearen ekimenez. Dakizuenetz, gure Bazkunak federazio horretan parte hartzen du.

Lehiaketaren helburua honakoa da: abokatu gazteak prestatzea, beste herrialdeetako pertsonekin lankidetzan aritzeko gai izan daitezen; hori dela eta, kontratazioaren inguruko merkataritza zuzenbideko kasu baten simulazioa egin beharko dute taldeek. Ariketa horretan alderdiak herrialde desberdinetakoak izango dira; alderdi biek interesa dute kontratu bat hitzartzeko. Abokatu talde bakoitzak kontratuaren klausulak beste alderdiarekin negoziatu beharko ditu eta kontratua idatzi.

Lehiaketan ingelesa bakarrik erabiliko da. Horrenbestez, parte hartzeko beharrezkoa izango da hizkuntzaren maila altua egiaztatzea.

Bidaiaren eta egonaldiaren gastuak Bazkunak eta Europako Abokatuen Elkargoen Federazioak ordainduko dituzte.

Lehiaketari buruzko informazio osoa Europako Abokatuen Elkargoen Federazioaren web orrialdean duzue, hain zuzen ere, hemen: [lotura](#).



**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS
DEL SEÑORIO DE BIZKAIA**

**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN
BAZKUN OHORETSUA**

los requisitos señalados interesados en participar en este proyecto, deberán inscribirse enviando un correo electrónico a la Escuela de Práctica Jurídica epj@icasv-bilbao.com, antes del día 15 de Junio mostrando su interés y acompañando un breve currículum. Los colegiados/as que se hayan inscrito, habrán de superar una entrevista personal que se desarrollará en inglés.

En la confianza de que esta iniciativa sea de tu interés recibe un cordial saludo,

Horrenbestez, baldintzak betetzen badituzue eta lehiaketan parte hartzeko asmoa baduzue, bidali email bat Praktika Juridikorako Eskolara (epj@icasv-bilbao.com) ekainaren 15a baino lehenago; bertan adierazi, arren, parte hartze horren arrazoiak eta erantsi curriculum labur bat. Izena ematen dutenek elkarrizketa bat egin beharko dute; elkarrizketa hori ingelesez izango da.

Ekimena interesgarria izango delakoan, jaso agur bero bat

**JAVIER BOLADO
SECRETARIO / IDAZKARIA**